



PLENOA

Konpost planta propioa, eztabaidagai

Hernani Zero Zaborrek aurkeztuko du mozioa hondakin oragonikoak hernaniarren esku egotea eskatzeko: «konpost planta txikia edukitzeko baimena ukatu du Aldundiak».

HERNANIKO udalean Plenoa dago gaur, 19:00etan. Gaiz zerrendan hamabi puntu daude eta hamaikagarrenean Hernanin Zero Zaborrek aurkeztutako mozioa eztabaidatuko da. Hernanin hondakin organikoak, hernaniarren esku egotea eskatuko du HZZ-ek. «Gipuzkoako Foru Aldundiak Hernaniko Udalarari ukatu egin dio bere hondakin organikoak kudeatzeko konpost planta propioa eraikitze baimena». II/2

HERNANI ARRAUNA

Iruretagoiena eta Pastor, txapeldun

Xabat Pastor arraunlaria eta Jon Iruretagoiena patroia Espainiako batel txapeldun geratu dira Galizian, Donostiarra taldearekin, nagusien mailan. Urteko estropadarik garantzitsuenetakoan, Santurtzi eta Zierbenaren aurretik sailkatu ziren finalean. Beraiekin batera aritu ziren: loiritz Orbegozo, Endika Alberdi eta Beñat Eizagirre bostekoa osatuz. II/7

ASTIGARRAGA-HERNANI TXIRRINDULARITZA

Urretabizkaia eta Zilbeti, puntan

Unax Urretabizkaia eta Aner Zilbeti taldekako garaipenarekin itzuli dira Arabatik. Donosti Berrirekin Arespalditzako San Prudentzio Sarian, kadeteetan, Urretabizkaia taldeko bigarrena izan zen, 17garren, eta Zilbeti, hirugarrena, 22garren. II/7

HERNANI PELOTA

Oier Garaiar, Udaberriko finalean

Oier Garaiar pelotari kadeteak, 18-16, irabazi zuen Udaberri Txapelketako finalerdia, Zestoako Sasiainekin batera. Finala igande goizean jokatuko dute Elizondon, Oiarpeko Etxeberria eta Olaizen kontra. II/7

GAUR KRONIKAN

Urumea /2

Jasota bezela, antzerkia, kontzertua Goiz Eguzkin, Mendi lasterketa, Ur Mía...

Kirolak /7

Eskubaloia, errugbia, erre-montea...



Tilos 7 Pasa, berotzen

Aste honetan partidu asko jokatuko dira. Atzokoak eta gero, gaurtik ostegunera bitarte hamalau jokatuko dira. /3

FUNERARIA ORBEGOZO BEILATOKIA

Asegururik ba al duzu?
Deitu Orbegozora

24 orduko tlfnoa.
943 33 10 20

www.funerariaorbegozo.com

Zentrala Latsunbe 7, Hernani

HERNANI ANDOAIN ASTIGARRAGA URNIETA GOIZUETA

Zerbitzu partikularak eta seguru etxeekin
• Beilatokiak • Errazketak • Lekuaditazak • Eskerak, korroak...

ATZA

Nagusia 32, ASTIGARRAGA
943 55 49 89
ikatzaferna@gmail.com

Berogailua badankagu

OTSUA - ENEA
SAGARDOTEGIA

Sagardoa gure kontura
astartetik ostiralera, ilunabarrean

Osiñaga auzoa, Hernani Tel. 943 55 68 94

■ HERNANI UDALA

Hernanin Zero Zaborrek mozioa aurkeztuko du gaur Plenoan

«Aldundiak konpost planta txikia egiteko baimena ukatuta, hondakin oragonikoak, hernaniarron esku» egotea eskatu du.

HERNANIKO udaletxean Plenoa egongo da gaur, 19:00etan. Gai zerrendan hamabi puntu daude eta hamaikagarrenean Hernanin Zero Zaborrek aurkeztutako mozioa eztabaidatuko da.

«Hernanin hondakin organikoak, hernaniarron esku!» egotea eskatuko du HZZ-ek mozioan, besteak beste, ondorengo argudiatuz: «Jakín dugunez, Gipuzkoako Foru Aldundiak Hernaniko Udalarari ukatu egin dio bere hondakin organikoak kudeatzeako konpost planta propioa eraikitzeo baimena. Europa osotik etortzen dira gure bilketa sistema eza-zutzerara, tartean organikoak nola biltzen dugun oso txukun. Bai ekonomia zirkularren logikak eta bai diru publikoak ondo erabiltzeko logika ekonomikoak diote txukun bildutako organikoak inguruan bertan konpostatzea dela onena, zikinago bildutako organikoarekin nahastu gabe, garraioak murriztuz, hurbileko egitura neurriko eta malguetan. Hondakinak sortzen ditugunon eran-



Apirilko ohikoa Plenoa egongo da gaur udaletxean.

tzukizuna dira, horregatik eutsi behar dio Hernanik. Erabat logikoa da Hernaniko udalak eraikitzea urtean 2.000 tona organiko konpostatuko lukeen planta. Hori gutxi balitz, Espainiako Gobernuak berak diru-laguntza onartuta dauka Hernaniko proiektu honentzako. Horren aurrean, Hernaniko Udalarari eskatzen diogu irmo eutsi diezaiola bere asmoari eta Gipuzkoako Foru Aldundiari eskatzen diogu bere erabakia alda dezala» adierazten da mozioan.

Gidabaimenen eta zirkulazio baimenen helbide aldaketa udaletxean egiteko proposamena
Plenoko beste gai-zerrendan nabarmentzekoa da Hernaniko Udalararen eta trafiko zuzendaritza nagusiko Gipuzkoako trafikoko buruzagitzaren arteko lankidetzaren sinatzeko proposamena, gidabaimenen eta zirkulazio-baimenen helbide aldaketa Hernaniko udalean egin ahal izateko. Amaieran erregu eta galderak egin daitezke. ■

☞ JASOTA BEZALA

✓ Gutuna argitaratzeko ezinbestekoak dira: izena eta bi abizen, NAN edo EHNA erakustea eta telefonoa ✓ Gehienez 1.800 karaktere onartuko dira ✓ Kronikak beste hizkuntzetan jasotako kartak euskeratzen ditu ✓ Kronikak ez ditu bere gain hartzen sail honetan esaten direnak, edo itzultzeko garaian izan daitezkeen gaizki ulertuak.

4.044 hernaniarren bultzada ezkerreko indar subiranisten ahotsa
Espainian entzunarazko
Hernaniko EH Bilduren izenean, gure eskerrik beroena eman nahi dizuegu gure proiektua babesteagatik. 4.044 hernaniarren botoa jaso dugu, Espainiako azken hauteskundeetan baino 1.165 boto gehiago. Hernanin indar politiko nagusia garelako berretsi dugu. Hernanin bezala, Euskal Herrian ere independentista eta ezkerreko indar bakarra gara eta EH Bilduren ahotsa, ezker subiranistaren ahotsa, Espainiako erakundeetan ere egotea garrantzitsua da. Orain bukatu berri den legegintzaldian erakutsi dugu gure ordezkariak Espainiako politikan eragiteko ahalmena dutela. Orain bikoiztu dugu diputatu

kopurua eta, gainera, ez gaude bakarrik. EH Bilduren ordezkariak eskuz esku arituko baitira Kataluniako lehen indarrarekin batera, ERCrekin batera. Bi indar independentistok estaturik gabeko nazioen aldeko mugimendu sendoa osatu dugu eta, gustatu ala ez, Espainiako erakundeetan gure ahotsa entzun beharko dute. Zuek hala erabaki duzuelako.

Luis Intxauspe Arozamena
Xabier Lertxundi
Asteasuinzarra

EAJ-PNVn lanean jarraitzen dugu eta igotzen
Hauteskunde hauetan bozkatu gaituzuen hernaniar guztiei eta EAJ-PNVk sei diputatu eta bederatzi senatari lortzeko lagundu digutenei eskerrak eman nahi dizkiegu. Gainera,

Hernanin, EAJ bigarren alderdi bozkatuena izan da 900 boto-eren hazkundearekin.

Argi dago Espainiako Kongresuan egin den kudeaketa lana eta lortu ditugun akordioak saritu direla. Lan horrek Euskadira onurak ekarri ditu, baita estatuko hiritarrei ere.

Gaur, EAJ-PNV bozkatu dugu guztiei, lortu dugun arrakasta ospatzea dagokigu eta hernaniarrei zerbitzuak emateko lanean jarduten dugunoi, jarraitu dezagun lanean eta maiatzeko hauteskundeak prestatzen jarraitu behar dugu, Hernanirentzat erronka handiagoa izango baita.

Eskerrik asko eta animo.

Andoni Amonarraiz
Gómez
EAJ-PNVko
Udal bozeramailea

■ HERNANI POEMAFARIA

Errioguardan gaur 20:30etatik aurrera

Poemafaria antolatuko du Hernaniko Kale Literatura taldeak gaurko. Errioguardaenea jabetzeko izango da, iluntzeko 20:30etatik aurrera. Horretarako Rafa Egiguren idazlearen 25 poema aukeratu dituzte. ■

■ EREÑOTZU UR MIA

Urteurren afarirako izena, gaur arte

Larunbatean egingo dute urteurren afaria, Ur Mia elkarteak, mus txapelketako finalen ondoren. Eta bertan afaltzeko, elkarteak apuntatu behar da, apirilaren 30a baino lehen. ■

■ HERNANI GOIZ EGUZKI

Gaur abesbatzen emanaldia

Goiz Eguzkin gaur, 19:00etan, Ordiziako Umore Ona eta Hernaniko Goiz Eguzki abesbatzen emanaldia izango da. Bihar, 11:00etan, aire zabaleko meza egongo da Aita Kardaberaz lorategian. Ondoren karta jokoetako eta kaleko jolaseko txapeldun eta txapeldunordeei sariak banatuko dira. Bukatzeko luncha izango da. ■

Eskelak

Eskelak ilunabarreko 19:30ak arte jasoko dira. Izen abizenak, eskela jartzen duenak eskatu bezala errespetatuko dira eta funeraria bidez jasotzen den kasuetan, jaso bezala.

† MARIE CLAIRE ADURIZ MARTINEZ

Atzo hil zen, 67 urte zituela

- Goian Bego -

Senarra: Ion Azpiazu; seme-alabak: Ainara eta Iñaki, Urko eta Amets; birloba: Itxasne, anaia: Vicente; ezkon anai-arrebak, ilobak, lehengusuak eta gainerako ahaideak.

Haren animaren alde otoi bat eskatzen dizute eta arren etor zaitzela **GAUR, ASTEARTEA**, arratsaldeko **ZAZPIETAN, SAN JOAN BATAIATZAILEA** parroki elizan egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

Hernanin, 2019ko apirilaren 30ean

OHARRA: Gorputza ORBEGOZO EHORKETA TANATORIOAN egongo da arratsaldeko 18:30ak arte.



MARIE CLAIRE ADURIZ MARTINEZ

Besarkada bat, Ainara

DOBERA-KRONIKAKO
ZUZENDARITZA ETA LANTALDEA

Hernanin, 2019ko apirilaren 30ean



AMAIA RODRIGUEZ
ALDAREGUIA

Gure ondotik joan zara, baina betiko izango zaitugu gure bihotzetan

HERNANI BHI INSTITUTUKO GURASO,
IKASLE, IRAKASLE ETA LANGILE

Hernanin, 2019ko apirilaren 30ean



AMAIA RODRIGUEZ
ALDAREGUIA

- Goian Bego -

Maitasunez

URBIETAKO FAMILIA

Hernanin, 2019ko apirilaren 30ean



HERNANI BHI

Institutua

DBH 3-4

/ 2019-04-30 asteartea /



**Euskal hiztun
AKTIBOAK**

*Eusle eta uzle artean
euskararekin jolasean* // 2



**Kafkak haur bat aurkitu
zuen negarrez** // 3



IKASBIDAIA

Parisek Klika // 3

POESIA

Maite poemak // 4

ERREPORTAJEA

Eusle eta uzle artean euskararekin jolasean

Eusle proiektua euskararen erabilera sustatzeko gauzatzen den proiektu bat da.

Proiektu honetan, bi partaide mota daude: *uzleak* eta *eusleak*. Eusleen eginkizuna ikastetxean, gelan batez ere, euskarari eustea da. *Uzleena*, aldiz, *eusleei* lana errazte aldera, *eusleei* euskaraz hitz egitea da. Hernani BHiko ikasle batzuk, 4.A gelakok, bertan parte hartzeko aukera izan dugu.

Proiektuan parte hartu aurretik, aztertzailea proiektua aurkeztera etorri zitzaigun. Saio berean, parte hartu nahi genuen galdetu zigun. Parte hartzeko, ikasleen % 75ek baino gehiagok baiezkoa bozkatu behar zuen. Gela guztiei aurkeztu zien proiektua. Bost geletan parte hartu nahi zutela atera zen eta, beraz, zozketa baten bitartez gela "aukeratua" atera zen.

Bi astetik behin, aztertzaile bat etortzen zen guregana proiektuaren nondik norakoak aztertzeraz. Saio horietan, aurreko

bi asteetan *eusleak* izan zirenak baloratzen genituen. Horrez gain, proiektuarekin aurrera jarraitu nahi genuen edo ez galdetzen zigun. Erantzuna beti baiezkoa zenez, hurrengo asteetako *eusleak* aukeratzen genituen. *Eusle* berberak mantentzeko aukera genuen, baina gure nahia jarraituz, bi astero *eusle* ezberdinak hautatu genituen. Horrela, hamasei *eusle* izan genituen.

Zortzi asteren ondoren, ohartu gara euskararen benetako egoera zein den gure bizitzan eta egunerokoan. Hori hobetze aldera, oraindik lan mordoa dugu aurretik, baina *Eusle* proiektua abiapuntu aberatsa izan da. Eskerrak eman nahi dizkiogu bai Institutuari bai aztertzaileari parte hartzeko aukera eman izanagatik, eta proiektuak iraun duen denbora guztian gure alboan egoteagatik. ||

Egileak:
Maider Zugasti
Rodríguez eta
Miren Arrillaga
Iturralde
Hernani BHiko
4.A-ko ikasleak.



JOLASA

Euskal geografirria

Gai al zarete herriak ordenatzeko barrerik egin gabe?

1. Zein da Nafarroan mutu gehien dagoen herria?
2. Zein da Araban lagunak gehien egitea kostatzen den herria?
3. Zein da Nafarroan esne gehien edaten den herria?
4. Zein da hobekien kokatuta dagoen herria
5. Zein da Lapurdin herririk hoberena bazkaltzeko?
6. Zein da Gipuzkoako herririk merkeena
7. Zein da Gipuzkoan noizbait gelditu behar den herria?
8. Zein da Gipuzkoan inoiz ere lapurtuko ez dizuten herria?

- A. Pasaia
- B. Baiona
- D. Segura
- E. Andoain
- F. Bakaiku
- G. Aia
- H. Otsagabia
- I. Peñacerrada

ERANTZUNAK

- A - 8
- B - 2
- D - 9
- E - 5
- G - 7
- F - 3
- I - 2
- H - 1

Egileak: 3. DBH D TALDEA

I IPUINA

Kafkak haur bat aurkitu zuen negarrez

Imaginatuz 1923ko udaberrian, tuberkulosiak jotako Franz Kafka Hernaniko kaleetan barrena.

Imaginatuz, Hernaniko Ezkiaga plazan ibilian zebilela haur bat negarrez bakar-bakarrik topatuta. Panpina galdu zuelako zegoen negarrez umetxoa. Kafkak erantzun zion aurkituko zutela galdutako panpina, eta hurrengo egunerako egin zuten hitzordua leku eta ordu berean.

Kafkak ezin izan zuen panpina aurkitu eta hurrengo egunean gutun bat eman zion umeari. Panpinarena zela esan zion. Honela zioen: "Mesedez egin negarrik. Mundua ezagutu nahi dut eta bidaian joan naiz. Gutunen bidez emango dizut nire abenturen berri".

Gutun sorta baten hasiera izan zen. Elkartzen zirenean Kafkak abenturaz beteriko gutunak irakurtzen zizkion haurtxoari. Umea nahigabea gainditzen joan zen poliki-poliki eta elkartzeari utzi baino lehenago

Kafkak panpin bat eman zion opari. Ez zen galdutako panpina eta gutun batekin zetorren: "Egindako bidaiek aldatu egin naute".

Urte batzuk beranduago, eta mutikoa nagusiagoa zelarik, paper mutur bat aurkitu zuen panpinaren barruan. Zirrikitu estu batean sartuta zegoen. Laburbilduta, honela zioen bertan idatzitakoak: "Litekeena da maite duzun gauza oro galtzea, baina amaieran maitasuna itzuli egiten da forma berri batean". II

Egileak: 3.DBH



I IKASBIDAIA

Parisek Klika

Pariseko amaraunean Ikasketa bidaian joandako Hernaniko ikasle eta irakasleek euskararen aldeko "IRRI KLIKA" egin zuten apirila hasi bezain laster. Euskararen lekukoa euskaldun orok daramagula erakusten duen lekukotasun bikaina. Hernanitik Parisera eta Eiffel talaiatik beha dezakegun ortzi-mugaraino KLIKA euskarari! II

Egileak: 4.DBH



■ MAITE POEMAK

HODEI ARTEAN

Txantxangorri txiki bat zeruan,
zeru urdin eta garbi batean
Kantari dabil txoria,
Kantari nire ondoan,
Eguna alaituz dator hona,
herri baketsu eta zoragarrira.
Lasai nago kotoizko hodeietan
Kotoizko hodeietan saltoka.
Haren kantu alaiekin esnatu naiz goizean,
Esnatu naiz goizean hodei artean.

Egilea:
June Clemente DBH 4.D

EZ AHAZTU ONENA ZARELA

Beti nire menpe, beti gure menpe,
Ondo ote geunden galdetzen,
Gaizkiak ongira pasatzen,
Loreak larrosetara igarotzen,
Egun gogor bat izan ondoren,
Inori ezer ere esan gabe,
Beti lanean inurriek bezala,
Batzuetan asko, gehienetan gehiegi,
Horregatik, ez ahaztu inoiz zu onena zarela
Eta asko maite zaitudala.

Egilea:
Irantzu Mujika DBH 4.D

AMONA

Jai eta nire amabitxia izateak
ekarri zizun berri ona!
Ortzadarra bezalakoa zara,
Kolore polit eta askoko pertsona
Berri onarekin batera erakutsi didazu
Ahal duzuna eta dagoena.
Azaldu ezin denez,
hitz batez ematen dizut:
ilargiraino eta buelta,
maite zaitut amona!

Egilea:
Udane Arruti DBH 4.E

EZ NAIZ JOSTAILUA

Zurekin egon nahi izateak
Ez nau pentsatzen uzten,
Egunero malko-tartean
Begi busti-bustiak,
Zer izango ote gara?
Ni ez naiz jostailu bat,
Ez dut zure atzetik ibili behar,
Eta zu itsu zaude,
Ni egunero negarrez
Baina zuri axola ezer ere ez.

Egilea:
Malen Lizarraga DBH 4. E

IKASLEEN TXOKOA
DBH 3-4



■ HERNANI TILOS 7 PASA

Hamalau partidu, gaurtik etzira

Aldaketak izan dira egutegian, eta atzeratutako asko jokatuko dira.

GAUR, asteartea	BIHAR, asteazkena	ETZI, osteguna
18:00, Bengoetxea-Granado/ Urien-Otaegi (Neskak)	18:00, Aiestaran-Aiestaran/ Txetxo-Popin (Herrikoia)	18:00, Zabala-Unda/ Begiristain-Arteaga (1. maila)
18:45, Gaizka-Ugalde/Goia-Zurutuza	18:45, Leonet-Etxeberria/Josu-Alex (2.)	18:45, Salaberria-Zumeta/ Ahmed-Erburu (1. maila)
19:30, Gereñu-Daguerre/ Iriarte-Gamio (1. maila)	19:30, Bidegain-Izoztegi/ Garmendia-Elosegi (Herrikoia)	19:30, Ruiz-Urdanpilleta/ Agirre-Mendigain (1. maila)
20:15, Lujanbio-Amondarain/ Rekondo-Udakiola (2. maila)	20:15, Martin-Iparragirre/ Barbulo-Aranjuelo (2. maila)	20:15, Tejedor-Urdalleta/ Pagola-Pichel (Herrikoia)
21:00, Imaz-Elizalde/ Auzmendi-Elizari (2. maila)	21:00, Perez-Errazkin/Txetxo-Popin (Herrikoia)	

■ HERNANI-ASTIGARRAGA TXIRRINDULARITZA

Taldeko garaipena Araban, Urretabizkaiak eta Zilbetik

Arespalditzako San Prudentzio Sarian, 17garren eta 22garren izan ziren hernaniarrak, taldearekin podiumera igotzeko.

ARABA aldera jo dute, joan den asteburuan, Urumea bailarako txirrindulari gehienek. Arespalditzan aritu ziren kadeteak, San Prudentzio Sarian, eta taldeko garaipena lortuta bueltatu ziren Unax Urretabizkaia eta Aner Zilbeti hernaniarrak, Donosti Berrirekin. 17garren izan zen Urretabizkaia, eta 22garren Zilbeti, taldeko bigarrena eta hirugarrena. Hortaz, taldeko garaipenean protagonista izan ziren biak.

Araba aldean aritu ziren juniorrak ere, Amurrioko Sarian. Proba oso azkarrean, eguneko ihesaldian aritu zen Jaime Romero astigartarra, eta baita mendiko puntu batzuk hartu ere. Baina tropelak kontrolpean izan zuen lasterketa beti, eta azkenean, 53 laguneko taldeak lehiatu zuen garaipena, esprintean; tartean, bailarako lau txirrindulari, baina aurreneko postuetan sartzeko aukerarik gabe: 20garren Telmo Semperena astigartarra, 41garren Romero bera, 46garren Enekoitz Azparren



Urretabizkaia eta Zilbeti (eskuinetik 3garrena eta 1goa), taldearekin podiumean.

astigartarra, eta 49garren Ibai Rodriguez hernaniarra. Minutu pasatxora helmugaratu zen Iker Iriondo hernaniarra, 59garren.

Eta azkenik, Lazkaoko Proba izan zuten 23 urtez azpikoek, bi astigartarrekin. Lazkaomendin gora hautsi zen lasterketa, erabat; eta 27garren postuan helmugaratzea lortu zuen Xabier Mikel Azparren astigartarrak, soilik 41 segunduko atzerapenarekin. Urko Semperena herriki-

deak, berriz, ez zuen lasterketa bukatu, Mikel Mujika taldeko dearentzat lanean aritu ondoren; bosgarren izan zen Mujika.

Bi lasterketa, bihar

Aste honetan, asteburura itxaron gabe, bihar daukate zita, bi kategoriatan: 23 urtez azpikoek eta eliteek, Legazpiko Santikutz Klasika izango dute, 09:30etan; eta juniorrek izen bereko proba Seguran, 16:15etan. ■

■ HERNANI ARRAUNA



Xabat Pastor eta Jon Iruretagoiena, lortutako banderarekin.

Pastor eta Iruretagoiena Espainiako txapelkun, Donostiarra batelarekin

Gizonezko absolutuen txapelketa irabazi zuten bi hernaniarrek, bosteko batelean.

JOAN den asteburuan jokatu da, Galizian, Espainiako Batel Txapelketa. Eta Hernaniko batelik izan ez bada ere, bi hernaniar bueltatu dira banderarekin, garaipen handia lortuta: Xabat Pastor arraunlariak eta Jon Iruretagoiena patroiak, irabazi egin dute Donostiarraren batelarekin, gizonezko absolutuen mailan.

Bosteko batela osatu dute bi hernaniarrek, Ioritz Orbegozo, Endika Alberdi eta Beñat Eizagirre taldekideekin batera. La-

runbateko sailkatze estropadetan finalerako txartela lortu, eta igandean hiru dezimako aldearekin lortu zuten garaipena, Itsasoko Amaren aurretik.

Hernaniko Arraun Elkarteak, biak zoriondu nahi izan ditu, garaipen horrengatik. Taldearen harrobikoa da Pastor, infantiletatik jubenetara bertan aritutakoa, Donostiarrara saltoa eman aurretik. Iruretagoiena, Urkiren harrobikoa izan arren, Hernanin gazteen entrenatzaile izan zen bi urtez. ■

■ HERNANI ERRUGBIA

16 urtez azpikoek, azken fasea Landaren

Liga bukatuta, asteburu honetan jokatuko dute azken fasea, 18 eta 16 urtez azpiko kategorietan. Eta 16 urtez azpikoak, Landaren ariko dira, larunbatean, 10:30etan hasita. Hernanik aurreneko semifinala jokatuko du, Zarautz-Beltzak taldearen kontra. Eguerdiko 13:15etan izango da final handia, bi semifinaletako irabazleen artean. ■

Latxe
Urumeako ur-ttikitan barrena
9. alea kalean!
latxe@kronika.eus
943 33 08 99

OGI BERRI OKINDEGIA
Rosa Morla
Kale Nagusia, 31
20115 ASTIGARRAGA
Tfn- 943 55 41 04 - 618 269 314
rmorlaluengo@yahoo.es

KRONIKAK INPRIMAKETAKO LAN POLTSA BERRITUKO DU

Bidali zure Curriculum Vitae-a, maiatzaren 6ra arte:
kronika@kronika.eus
Dobera Euskara Elkarte
Larramendi 11 behea
20.120 HERNANI

ESKATZEN DA:

- Euskera ondo menperatzea, hitzez zein idatziz
- Inprimaketa lanak egiteko gaitasuna
- Kotxeak karneta eta kotxea izatea
- Lantaldean aritzeko gaitasuna
- Iniziatiba eta enpatia

BALORATUKO DA:

- Inprimaketa lanetan esperientzia
- Urumea bailara ezagutzea
- Doberako bazkide izatea
- Tokiko hedabideak ezagutzea
- Aktualitatearen jarraipena egitea

Kronika DOBERA

GAUR Eguzkitsua egongo da bihar ere. Goizaldeko lainoa desegin, eta zerua urdin egongo da, egun osoan zehar. Goi-laino gutxi batzuk besterik ez dira agertuko. Ipar-ekialdeko haizea ibiliko da, baina tenperatura ez da aldaketarik izango. **Min.7° / Max.19°**

BIHAR Goizean giro eguzkitsua izango dugu oraindik, nahiz eta erdi- eta goimailako lainoak agertuko diren. Baina eguerditik aurrera, aldaketak izango dira: haizea ipar-mendebaldera aldatuko da, eta lainoak asko ugartu egingo dira. **Min.7° / Max.19°**



TAXIAK: 943 550093 (Hernani) 622 222 343 (Astigarraga) 948 514037 - 948 514019 (Goizueta) **UDALTAINGOA:** 943 248900 (Hernani) 943 335230 - 699 487 587 (Astigarraga) **DYA:** 943 464622 **AUTOBUSAK:** Garayar: 943 556658 Areizaga: 943 452708 Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037 **ANBULATORIOA:** 943 006666 - 900 203050 (Hernani) 943 335644 (Astigarraga) 948 510800 (Goizueta) **Egunez:** **Castilla** Urbieta, 7 (Hernani) **943 552941** **Gauetz:** **Aldabe** Perkaiztegi, 8 (Antziola, Hernani) **943 336022** Goizueta: Nagusia 64 **948 514353**



HERNANI ERREMONTEA

Ezkurra II eta Garces, finalera

Gurutzetako bikoteak lortu du bigarren txartela, Sagardoaren Txapelketako finalerako, Urriza eta Zalduari irabazita (40-36).

GURUTZETA eta Petrategi sagardotegiek lehiatuko dute aurten, final haundian, Sagardoaren Txapelketako garaipena. Izan ere, Ezkurra II eta Garcesek lortu dute bigarren txartela final

horretarako. Gurutzetako ordezkariak 40-36 irabazi zieten larunbatean, Urriza eta Zalduari (Gaztañaga). Datorren larunbatean izango dute finala, Segurola eta Endikaren kontra.

Semifinalean, Garces izan zen onena. Defentsan bikain aritu zen, eta erasora pasa zenean ere, ederki asmatu zuen, bai jokoa eta bai saketik: 13 tanto egin zituen; zazpi, sakez. ||

HERNANI ESKUBALOIA

«Gure neska-mutilek oso toki onean utzi zuten taldearen izena, Basaurin»

Basauri Bizkaia Handball Cup topaketan hartu zuten parte, Aste Santuko jaiegunetan, Hernani Eskubaloia Taldeko sei taldek.

OSO pozik azaldu da Hernani Eskubaloia Taldea, Aste Santuan bizitako esperientziarekin. Lau egunez, apirilaren 18tik 21era, Basauri Bizkaia Handball Cup topaketan hartu zuten parte, klubeko sei taldek: infantiletan, nesken talde bat eta mutilen bi talde; kadeteetan neska eta mutilen talde bana; eta mutil jubenilen taldea.

Lau egunetan, 30 partidu jokatu zituzten hernaniarrek; eta aurkarien maila «altu xamarra» izan arren, «partidu interesgarriak eta lehiatuak» izan ziren, klubak azaldu duenez. Bereziki nabarmendu dute, mutil infantilen talde batek egindako «txapelketa bikaina, emaitzak gutxienezkoa badira ere».

Hori horrela, klubak jokalaririk guztiak zoriondu nahi izan ditu: «erakutsi duten jarrerarekin eta pistan jarri duten gogo eta grinarekin, Hernani Eskubaloia Taldearen izena merezi



Hernani eta Urdaibai taldeetako jokalariek bat eginda, partidu baten ondoren.

duen lekuan utzi dute».

Gainera, partiduak jokatu bakarrik ez, bestelako jarduerak ere egin zituzten hernaniarrek: Bilbora bisita gidatua, igerilekura irteera, eta pijama festa azkeneko egunean. «Oso esperientzia aberasgarria izan da, zaletasuna sortzeko balio duena; leku desberdinetako neska-mutilen kirol eta bizikidetzat

paketa batean, eskubaloiaz gozatzearekin batera lagun berriak egiteko aukera paregabea».

Azkenik, aipamen berezia egin nahi izan diete, klubeko entrenatzaile eta monitoreei, «egin zuten lan bolondresagatik. Ezinezkoa litzateke hori guztia aurrera eramatea, haien ardura, konpromiso eta laguntzarik gabe». ||

HERNANI-ASTIGARRAGA ESKU PELOTA

Udaberriko finalean ariko da Oier Garaiar

18-16 irabazi zuen finala hernaniarrek, Sasiainekin, Ballarena eta Laboaren kontra.

EMAITZA onak lortu dituzte asteburu honetan, txapelketa ezberdinetan, esku pelotari hernaniarrek. 16 partidutatik bederatzi irabazita, bereziki nabarmentzekoa izan da Oier Garaiar kadeteak lortu duena: Zestoako Sasiainekin batera, 18-16 irabazi zuen Udaberri Txapelketako semifinala, Ballarena eta Laboaren kontra. Partidu berdinduan, odol hotzez jokatu zuten Garaiarrek eta Sasiainek azkeneko tantoetan, garaipena lortzeko. Finala igande goizean jokatu dute, Elizondon, Oiarpe taldeko Etxeberria eta Olaizen kontra.

Emaitza onak lortu zituzten Gipuzkoako Lau terdiko Txapelketan ere, Unai Albeniz eta Unax Uitzu kadeteek, eta Xabier Salaberria jubenilak. Hiruek irabazi zuten, partidurik galdu gabe jarraitzen dute, eta auke-

ra asko dauzkate, txapelketaren azken fasea jokatzeko.

Jardunaldiko albiste txarra, Oihan Zugasti jubenilaren porrota izan da, GRABNI Torneoan. Gaztelekuko Huitzirekin batera, azkeneko tantoan galdu zuen semifinala (39-40), Nafarroako bikotearekin kontra.

Mundarrok Berriako final zortzirena igandean, etxean Esku pelotari astigartarrek, berriaz, asteburu honetan daukate zita garrantzitsua. Berria Txapelketaren final zortzirena jokatu dute igandean, Doneztebeko Erreka taldearen kontra; eta etxean ariko dira, Astigarragako Txomiñenen, 17:00etan.

Mundarrok hiru partiduak irabazi zizkion final hamaseirenetan, Lizarrako San Miguel taldeari; eta final laurdenetara pasea lortu nahi dute orain. ||

IRAGARKI MERKEAK

Pisua salgai Hernaniko erdigunean; 2 gela, sukaldea, sala eta komuna. Egoera onean. Deitu: 628 116 949

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesologia, reiki, homeopatia, akupuntura,... Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)

Kultura eta Hizkuntza
Politika Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak)
diruz lagundua



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA



HERRI URRATS 2019
MAIATZAREN 12A

Etorri gurekin autobusez, Hernanitik Senperera!

Eguna **Maiatzak 12**
Izena emateko azken eguna **maiatzaren 9a**
Prezioa Bazkideak **10€**
Gainerakoak **12€**

Irteteko **Atsegindegin 09:15etan**
Itzultzeko **Senperen 19:00etan**
Larramendi 11, behea - HERNANI
943 33 27 99 - dobera@dobera.eus


